



**16/2004 GOMENDIOA, UZTAILAREN 13<sup>KOA</sup>, EUSKO JAURLARITZAREN ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILARI EGINA, ETXEBIZITZA LIBRE ERABILIA EROSTEKO LAGUNTZA UKATZEN DUEN EBAZPEN DEUSEZA INDARRIK GABE UTZ DEZAN.**

Aurrekariak

1. Kexagileak etxebizitza libre erabilia erosteko diru-laguntza eskatu zuen 2002ko azaroan, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak horretarako aurreikusi zuen laguntza-egitarauaren barruan.
2. 2003ko urtarrilean, interesdunak Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Bizkaiko lurralde ordezkariaren ebazpena jaso zuen, abenduaren 18koa. Ebazpen horren bidez, 10.036,90 euroko diru-laguntza eman zitzaion, 2002ko urriaren 9ko Aginduak –etxebizitza erosteko finantza-neurriei buruzkoak– 1. xedapen iragankorrean ezarritakoaren arabera.
3. Diru-laguntza 2003ko apirilaren 11n sartu zioten kontuan.
4. Hala ere, 2003ko maiatzaren erdi aldera, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Bizkaiko lurralde ordezkariaren beste ebazpen bat hartu zuen, 2003ko maiatzaren 2koa. Laguntza ukatzeko ebazpena zen, eta bertan zera adierazi zitzaion: eskritura publikoa 2001eko abenduaren 27an egin zenez gero, ez zituela betetzen aipatu dugun aginduaren 1. xedapen iragankorrean eskatutako baldintzak.
5. Ukapen-ebazpenak honako ohar hau zuen bukaeran: “ebazpen honek aurrekoa ordezkutzen du, 2002ko abenduaren 18an emandakoa”. Interesdunak gora jotzeko errekurtsua egin zuen, baina oraingoz ez du erantzunik lortu.
6. Kexa azaldu eta bideratzeko onartua izan ondoren, Arartekoak gai horren gaineko informazioa eskatu zion Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari, kexa behar bezala bideratzearren.

Zehazki, 2003ko maiatzaren 2ko ukapen-ebazpenari buruzko argibideak eskatu genizkion, izan ere, ebazpen haren bitartez, eskubideak aitortzen dituen egintza bat berrikusi zen, baina azaroaren 26ko 30/1992 Legean –Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoan– ezarritako prozedura alde batera utziz (VII. tituluaren I. kapitulua, administrazio-egintzak ofizioz berrikustearren gainekoa).



7. Gure idazkiei erantzunez, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak hainbat txosten igorri zizkigun. Aipatutako gai ezberdinak azaldu zizkigun, baita administrazioak eskura dituen “baliabideak” ere, baina ez zuen berariazko neurririk hartu erakunde honen proposamena aintzat hartzeko.

### Gogoetak

1. Espediente honetan, kexagilearen nahiak oinarri juridikorik ba ote duen argitu nahi dugu. Interesdunak administrazioaren hutsegitezat jotzen du aldeko ebazpena bidali zion organo berak orain kontrako ebazpena ematea, tartean zertzelada berririk edo hasieran emandako agiriez bestelakorik izan gabe.
2. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2002ko urriaren 9ko Aginduak, etxebizitza erosteko finantza-neurriei buruzkoak, hauxe adierazten du lehen xedapen iragankorrean: *“Ezarrিতako baldintzak betez 2002. urtearen barruan eta Agindu hau indarrean sartu aurretik eskritura publikoan gauzatu diren etxebizitza-eskurapenek jaso ahal izango dituzte Agindu honetan etxebizitza libre erabilia erosteko bildutako diru-laguntzak”*.

Orduan, eskritura publikoa 2001eko abenduaren 27an egin zela egiaztatu denez gero, 2002ko abenduaren 18ko ebazpena (etxebizitza libre erabilia erosteko, interesdunari 10.036,90 euroko laguntza eman ziona) ez zetorren bat arau horrekin.

3. Hauxe da argitu beharreko kontua: administrazioak zein tresna dituen interesdunaren aldeko ebazpen bat baliorik gabe uzteko, legeria urratuz oker egindako ebazpena denean.

Sail horri bidalitako informazio-eskaeran, erakunde honek legeriaren kontrakotzat jotako egintza bat berrikusteko aurreikusita dauden prozedurak aipatu zituen, hain justu, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen –Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa– 102 eta 103. artikuluetan araututakoak.

Honela dio 102. artikulua: *“Herri-administrazioek, beren ekimenez edo interesdunek eskaturik, eta Estatu Kontseiluak edo autonomia-erkidegoko organo aholku-emaile baliokideak, halakorik bada, aldeko irizpena eman ondoren, **deuseztat** joko dituzte, beren kabuz eta edozein unetan, administrazio-bidea amaitu duten administrazio-egintzak edo epe barruan beren aurkako administrazio-errekurtsorik izan ez dutenak, 61.2 artikuluan jasotako kasuetan”*.



Bestalde, 103. artikulua haxe adierazten du: *“Interesdunen aldeko egintzak izanda, lege honen 63. artikulua arabera **deuseztagarri** diren egintzak badira, egintzok interes publikorako kaltegarritzat jo ditzakete herri-administrazioek, gero administrazioarekiko auzien jurisdikzioan egintza horien aurka egiteko”*.

4. Gure iritzian, Etxebizitza eta Gizarte Sailaren Bizkaiko lurralde ordezkariak 2003ko maiatzaren 2an emandako ebazpena erabat deuseza da, interesdunaren aldeko egintza bat berrikusteko legez ezarrita dagoen prozedura zeharo baztertua eman baita [62.1 artikulua f) atala].

Izan ere, laguntza bat ukatzeko prozedura erabili da, baina, benetan, interesdunaren aldekoa zen aurreko egintza bat ezeztatu da izatez.

Beraz, administrazioak ebazpen hori deuseza dela ofizioz adierazteko prozedura hasi beharko luke, prozedurari buruzko Legearen 102.1 artikuluan agindutakoaren arabera.

5. Kasu honetan, ordea, kexagileak gora jotzeko errekurtsio bat egin zuen 2003ko maiatzaren 2ko ukapen-ebazpenaren kontra, eta errekurtsio hori oraindik ez da ebatzi.

Horrela, ez litzateke beteko Legearen 102.1 artikuluan xedaturikoa, egintza bat ofizioz baliogabetzat jotzeko baldintzen artean honako hau adierazten baitu: *“epe barruan beren aurkako administrazio-errekurtsorik ez izatea”*.

Sailak bidalitako lehen txostenetik ondorioztatzen diren hainbat baieztapen gorabehera, indarreko Administrazioaren Prozedurazko Legeak zehatz-mehatz agintzen du prozedura guztietan berariazko ebazpena eman behar dela (42.1 artikulua), eta, gainera, ebazpen horrek arrazoitua izan behar duela; ez da zuzena, jakinaren gainean, zuzenbidearekin bat ez datorren erabakia hartzea.

Agintaritza eskudunak ezin ditu, inolaz ere, prozedura bat bideratzeko eskura dauden aukera juridiko gisa erabili administrazioaren lege-urratzeen aurrean legeriak kaltetuentzat aurreikusi dituen berme juridiko eta baliabideak (erabakitzeke epeak, isiltasun positibo eta negatiboa, administrazioarekiko auzibidea hastea).



Bestela esanda, administrazioak kasu zehatz honetan ez dauzka hiru aukera hauek: 1) jarritako errekurtsua onartzea; 2) errekurtsua ezatea, epez kanpoko erabakiaren bidez; 3) erabakia jada hartua dagoela ulertzea.

Jakina, administrazioak hiru aukera horietatik edozein hautatuko balu, hautaketak interesdunarentzat ondorio juridikoak izango lituzke, baina ezin dugu ahaztu administrazioak, legeriarekin bat etorriko bada, jarduteko aukera bakarra duela: gora jotzeko errekurtsu hori ebatzea eta, jakina, zuzenbidearen arabera ebatzea.

6. Bestalde, bigarren puntuan aipatu dugunez, abenduaren 18ko interesdunaren aldeko ebazpena ez zetorren bat laguntzak ematea arautzen zuen Aginduarekin. Hortaz, egintza deuseztagarri baten aurrean geundeke, legeria urratu delako eta egintza baliogabetzat jotzeko kasuetatik bakar bat ere gertatu ez delako. Hau da, aldeko egintza horren ondorio juridikoak desagerrarazteko (interesdunak orain urtebete baino gehiago kobratu zuen diru-laguntza), administrazioak ebazpena berrikusteko dagokion prozedura erabili beharko du.

Aipatutako prozeduran, kasu honetako zertzelada zehatzak aztertu beharko dira, legeriaren kontrakotzat jotzen den egintza berrikusteko izapide egokiak zehaztuko dituen kalifikazio juridikora iristeko, hala badagokio. Gainera, azterketa horretan aintzat hartu beharko dira Legearen 106. artikulua berrikusteko ahalmenari berari ezartzen dizkion mugak.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

**16/2004 GOMENDIOA, uztailaren 13koa, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari egina**

1. Indarririk gabe utz dezala Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Bizkaiko lurralde ordezkariak 2003ko maiatzaren 2an emandako ebazpena, (...) jaunari eta (...) andreari etxebizitza libre erabilia erosteko laguntza ukatzen diena, erabat deuseza delako.
2. Hala badagokio, lege ezarritako prozedura erabil dezala Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Bizkaiko lurralde ordezkariak abenduaren 18an emandako ebazpena berrikusteko, haren bidez onartu baitzen etxebizitza libre erabilia erosteko laguntza ematea.